Fruta dendan

Herriko fruta saltzaileak denda txiki bat du. Apaletan frutak eta barazkiak daude. Biltegian hozkailu handi bat du, frutak eta barazkiak freskoago gordetzeko.

1. **Fruta saltzaileak lau zatitan moztu du laranja bat. Begiratu irudiari eta erantzun galderei.**
Zatietako bakoitza laranjaren laurdena da?

……..

Zergatik?

……

2. **Fruta saltzaileak laranjondo bat du baratzean. Esan, gutxi gorabehera, zenbat pisatzen duten irudian ikusten diren laranjek guztira.**

A. Kilogramo bat baino gutxiago.

B. Kilogramo bat.

C. Kilogramo bat baino gehiago eta lau baino gutxiago.

D. Lau kilogramo edo gehiago.

LIVEWORKSHEETS

3. **Ikusi bi balantza hauek. Sagar guztiek berdin pisatzen dute. Zenbat gramo pisatzen dute eskuineko balantzako bi sagarrek?**

A. 96 gramo.

B. 160 gramo.

C. 240 gramo.

D. 320 gramo.

4. **Aurki ezazu sandiaren pisua, pista hauei jarraituz.**

- **Zifra guztiak bikoitiak eta desberdinak dira.**
- **Batekoen zifra ehunekoen zifraren hirukoitza da.**
- **Hamarrekoen zifra milakoen zifraren bikoitza da.**

Laukitxo bakoitzean, dagokion zifra idatzi.

4				gramo
M	E	H	B	

LIVEWORKSHEETS

5. **Nire aitonak 60 orburu erosi ditu herriko frutadendan. Orburuen $\frac{1}{3}$a oparitu digu. Zenbat orburu oparitu dizkigu?**

A. 10 orburu.

B. 20 orburu.

C. 30 orburu.

D. 40 orburu.

6. **Fruta saltzaileak, 3 zaku patata, 5 kaxa laranja eta 4 kaxa sagar erosi ditu. Zenbat kilogramo erosi ditu guztira?**

Idatzi eragiketak eta soluzioa.

27 kg

18 kg

13 kg

Guztira, ... kg erosi ditu.

7. **Fruta saltzaileak 168 kilogramo udare erosi ditu. Dendan 2 kaxa utzi ditu eta biltegiko hozkailuan beste 4 kaxa. Kaxa guztiek berdin pisatzen dute. Zenbat kilogramo pisatzen du kaxa bakoitzak?**

A. 22 kilogramo.

B. 28 kilogramo.

C. 38 kilogramo.

D. 56 kilogramo.

LIVEWORKSHEETS

8. **Fruta saltzaileak erlojuari begiratu dio. Denda arratsaldeko zortziak eta laurdenetan ixten badu, zenbat minutu gelditzen zaizkio denda ixteko?**

A. 80 minutu.

B. 110 minutu.

C. 140 minutu.

D. 170 minutu.

9. **Fruta saltzaileak 7 euro itzuli dizkio bezero bati. Bete ezazu taula posible diren aukera guztiekin, baina soilik hor agertzen diren txanponak edo billeteak erabiliz:**

	Bost euroko zenbat billete erabiliko ditu?	**Bi euroko zenbat txanpon erabiliko ditu?**	**Euro bateko zenbat txanpon erabiliko ditu?**
Adibidea	***1***	***1***	***0***
1. aukera			
2. aukera			
3. aukera			
4. aukera			
5. aukera			

LIVEWORKSHEETS